



JON ALONSO
IDAZLEA

Errudunak, berriz ere

Duela hamabi bat urte irakurri nuen Spencer Weart zientzialariaren *Beroketa globalaren aurkikuntza* (*The Discovery of Global Warming*) liburua, artean gai hori hasia zenean protagonismoa hartzen batzuen (txoropito batzuen, orduan, askoren ustez) elkarrizketetan. Konbentzitu egin ninduen, adiskide batzuei pasatu nien. Liburu hura irakurtzera eraman ninduena Pirinioetako glaziarren egoera izan zen: mendizaleok ikusi ahal izan dugu, gure garai historikoan eta neurtzeko tresna sofistikatuen beharrik gabe, begi hutsez, alegia, Aneto, Russell edo Vignemaleko glaziarrek nola joan diren urritzen, txikiagotzen eta are desagertzen ere urtez urte.

Alabaina, aldaketa klimatikoa benetan gertatzen ari dela seguru-seguru jakiteko azken froga *El Pais*-en aurtengo abuztuako editorial batek eman zidan (abuztuaren 9koa). Editorial hartan, munduaren alde honen jabeen bozeramailea den egunkariak gu guztiok –bai, zu zeu, irakurle; ni neu, zure lankidea, kaletik doan hura...– egiten gintuen aldaketa klimatikoaren erantzule: “Gizarteak onartu duelarik aldaketa klimatikoa benetakoa dela, errua bota die industria energetikoari, Amazonia, bioerregaia lortzeko, soiltzen duten enpresari harrapakariei eta beste hainbat susmagarriri (...) Eta hori egia da, baina historiaren erdia baino ez da.

Beste erdia erantzukizun indibiduala da, munduko biztanle bakoitzari dagokiona”. Ulertu dut mezua: “Mundua erremediorik gabe izorratuta dago, bai horixe, baina errua ez da gurea, errua zuena da”. Munduaren alderdi honen jabeak erruak besterenganatzen hasten badira, zer besterenganatu badagoen seinale.

Esaten zuten, ba, garai bateko kapitalistek: aseezinak gara. Baina urtero itsasora doazen ez dakit zenbat milioi tona plastiko horien erantzule nagusia naiz, supermerkatuak joan eta plastikoz bildutako gurdi bete produktu besterik eskaintzen ez badirate? CO²-ren isurketen errudun nagusi, publizitateak minuturo denetarik kontsumi dezadan matxakatzen banau? Abuztu minean Hego Afrikako laranjak saltzen badizkirate? Enpresari harrapakariek eta gizabanakook ez ezik, politikariek, legeak egiten dituztenek, alegia, ez dute erantzukizunik honetan guztian?

Neurriak hartu behar dira, jakina; baina inork ez du bizarrik hartu behar diren neurriak hartzeko, gure munduaren eta bizimoduaren goitik beherako aldaketa lekarketelako.

Ausaz, goitik behera aldatutako mundu horretan leukakete aukeraren bat katalanek, Nafarroako euskarak eta zuntz optikoak sare publikoak nahi dutenak. Gaurkoan, inork edo ezerk edukiko al du? ●



CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Tinderraz

Bada Jaume Gelaberten esaldi bat oso ona iruditzen zaidana: “Tinderraz ez dagoena... egonen da egunen batean”. Duela egun batzuk egin dako elkarrizketa batean adierazten nuen Tinderren soslaia nuela eta sobera ere oso deigarria egin zaio bati baino gehiagori nola den posible harreman sare handia duen batek Internet bidez jende berria ezagutu nahi izatea, areago ezagun xamarra naizenean hainbat girotan. Aparteko arazorik ez dudanean gustuko dudari hain zuzen gustuko dudala adierazteko. Musikene-n ikasten dutela aitortzen duten guztiek egiazki

bertan ikasiko balute, mila ikasle baino gehiago izanen lituzke. Deigarria egin zait ere zenbat eskalatzaile, mendizale eta oro har kirolari dagoen hor barrena. Baina, txantxaz harago, bertan ikus daitezke gu bezalatsukoak direnak, taberna ezagunetako langileak, bertsolariak, enpresariak eta hautetsiak. Jende interesgarria eta hutsala. Gezurtia eta garbia. Internetez harago bezalatsu. Aitortzen dut epe laburra eman dudala bertan, eta salbuespen eder bat kenduta, ez dela nik bilatzen dudan harreman mota. Salbuespenarekin geratu naiz, hortaz. Eta, ondortik, baja eman. ●